

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

580/2022 Foru Agindua, abenduaren 12koa. Onestea agindu honen I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean azaltzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 24ko 289/2022 Erabakiaren bidez, onetsi zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintza.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren abenduaren 7ko 572/2022 Foru Aginduak onesten ditu aipatutako enplegu eskaintza publikoaren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak.

Enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, zeinetan zehaztu behar baitira haietako bakoitzaren ezaugarri bereziak.

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 23. artikuluan eta II. tituluko IV. kapituluan langileen hautaketari buruz ezarritakoarekin, eta Funtzio Publikoaren eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Foru Administrazioaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea agindu honen I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean azaltzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak.

ERANSKINA	DEIALDIAREN KODEA	PLAZA
I	1122	Administrazio Orokorreko teknikaria
II	1222	Ekonomia eta enpresa zientziak
III	1322	Zuzenbidea
IV	1422	Ingurumeneko teknikaria
V	1522	Bide, ubide eta portuetako ingeniaria
VI	1722	Hizkuntza normalizazioko teknikaria
VII	11022	Ingurumen ebaluazioko teknikaria
VIII	11222	Lankidetzako teknikari kudeatzailea
IX	11322	Agiritegi eta liburutegiak
X	11422	Museoak
XI	2122	Administrazio orokorreko erdi mailako teknikaria.

ERANSKINA	DEIALDIAREN KODEA	PLAZA
XII	2222	Nekazaritza-ingeniari teknikoa
XIII	2422	Industria-ingeniari teknikoa
XIV	2522	Herrilaretako ingeniari teknikoa
XV	2622	Zaharberrikuntza
XVI	2822	Bibliotekonomia eta dokumentazioa
XVII	2922	Gizarte sustapena
XVIII	3122	Administrataria
XIX	3222	Enologia
XX	3322	Delineazioa
XXI	3422	Basozaintza
XXII	3522	Automozioa
XXIII	3622	Mantentzeko ofiziala
XXIV	3722	Arte grafikoak
XXV	3822	Liburutegiko laguntzailea
XXVI	4122	Administrari laguntzailea
XXVII	4222	Harreragile-telefonista
XXVIII	4322	Erakundeko txoferra/gidatza
XXIX	4422	Mantentzeko laguntzailea
XXX	4522	Herrilaren kontrolatzailea
XXXI	4622	Laborategia
XXXII	4722	Moldiztegia
XXXIII	4822	Topografia
XXXIV	4922	Herrilaretako bidezaina
XXXV	41022	Landa jagoletza
XXXVI	41122	Landako laguntzailea
XXXVII	5122	Mendekoa

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erki-dearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 12a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

**I. ERANSKINA****ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN
SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.****1.- DEITUTAKO PLAZAK.**

Dei egiten da administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoko 4 plaza (A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 2 plaza, 4. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe daukaten lanpostuei dagozkie.
- plaza 1, 3. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe daukan lanpostu bati dagokio.
- plaza 1, 3. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukan lanpostu bati dagokio.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, zuzenbideko edo politika, ekonomia edo enpresa zientzietako lizentzia edo gradua, merkataritzako intendente edo aktuario titulua edo gradu baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Euskarazko hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun data igarota daukan lanpostua esleitzeko, hura betetzen dela egiaztatu beharko da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat



hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoko eta A1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak, baldin eta haietan jarduteko ez bada behar azpieskala horretan sartzeko behar den titulazio espezifikorik.

Baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoko A1 azpitaldeko lanpostuetan emandako zerbitzuak, baldin eta lanpostu horietan jarduteko ez bada behar azpieskala horretan sartzeko behar den titulazio espezifikorik.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plazarik lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deialdian parte hartzeko eskatzen diren titulazioei dagozkien espezialitateetako doktore titulua: 2 puntu.
- B. Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulu bakoitzeko, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoa izan ezik. 1,5 puntu.
- C. Deialdian parte hartzeko eskatzen diren titulazioei dagozkien espezialitateetako unibertsitate master ofizial eta homologatu bakoitzeko: 0,5 puntu.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko



4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

- A. Administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoan Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.
- B. Administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoan Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 12 puntu.
- C. Administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoan Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 6 puntu.
- D. Administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoan Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 3 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Derrigortasun data igarota daukan hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskaraz jakitea, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 6,25 puntu.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 11 puntu.

**5.– Lehen tasun klausula aplikatzea.**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkaturik deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehen tasunik.



II. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (EKONOMIA ETA ENPRESA-ZIENTZIAK)
SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 8 plaza (ekonomia eta enpresa-zientziak, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- plaza 1, 4. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukan lanpostu bati dagokio.
- 2 plaza, 3. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkie.
- plaza 1, 4. hizkuntza-eskakizuna duen eta derrigortasun data igarota ez daukan lanpostu bati dagokio.
- 4 plaza, 3. hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun data igarota ez daukaten lanpostuei dagozkie.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, ekonomiako lizentzia, ekonomiako gradua, enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia, enpresa-zientzietako lizentzia, enpresen administrazio eta zuzendaritzako gradua edo titulu baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazaei dagozkien 2 lanpostu esleitzeko, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da, eta beste lanpostu batek beharrezkoa du 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Era berean, deitutako plazaei dagozkien 3 lanpostu esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.



Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak, baldin eta haietan jarduteko beharrezkoa bada ekonomiako lizentzia, ekonomiako gradua, enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia, enpresa-zientzietako lizentzia, enpresen administrazio eta zuzendaritzako gradua edo titulu baliokideak edukitzea.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzak zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeak, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan emandako zerbitzuak, baldin eta haietan jarduteko beharrezkoa bada ekonomiako lizentzia, ekonomiako gradua, enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentzia, enpresa-zientzietako lizentzia, enpresen administrazio eta zuzendaritzako gradua edo titulu baliokideak edukitzea.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako doktore titulua: 2 puntu
- B. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua: puntu 1.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko



- C1 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauek bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

- A. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (ekonomia eta enpresa-zientziak, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.
- B. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (ekonomia eta enpresa-zientziak, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 12 puntu.
- C. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (ekonomia eta enpresa-zientziak, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 6 puntu.
- D. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (ekonomia eta enpresa-zientziak, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 3 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Derrigortasun data igarota daukan hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskaraz jakitea, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.



- 2. hizkuntza-eskakizuna: 6,25 puntu.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 11 puntu.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkaturik deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.



III. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (ZUZENBIDEA) SARTZEKO IRAUPEN
LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN
OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 4 plaza (zuzenbidea, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 2 plaza, 4. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe daukaten lanpostuei dagozkie.
- plaza 1, 3. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe daukan lanpostu bati dagokio.
- plaza 1, 3. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukan lanpostu bati dagokio.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, zuzenbideko lizentzia edo zuzenbideko gradua eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagokien lanpostu 1 esleitzeko, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

Era berean, deitutako plazei dagozkien 2 lanpostu esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015



Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin A (A1) taldeko lanpostu edo eginkizunetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak, baldin eta haietan jarduteko beharrezkoa bada zuzenbideko lizentzia edo zuzenbideko gradua edukitzea.

Baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira A (A1) taldeko lanpostu edo eginkizunetan emandako zerbitzuak, baldin eta haietan jarduteko beharrezkoa bada zuzenbideko lizentzia edo gradua edukitzea.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako doktore titulua: 2 puntu
- B. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua: puntu 1.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:



- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

- A. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.
- B. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 12 puntu.
- C. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2016ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 6 puntu.
- D. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (zuzenbidea, A1 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiaren aurrekoan (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 3 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Derrigortasun data igarota daukan hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskaraz jakitea, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 6,25 puntu.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 11 puntu.



IV. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (INGURUMENA) SARTZEKO IRAUPEN
LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN
OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko plaza 1 (ingurumena, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazari dagokion lanpostuak 4. hizkuntza-eskakizuna dauka, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, titulu hauetakoren bat eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki: agronomia-ingeniaria, mendi ingeniaria, ingurumen zientzietako lizentziaduna, unibertsitate graduak gehi agronomia-ingeniaritzako edo baso ingeniariatzako masterra edo ingurumen arloko prestakuntza duten beste unibertsitate gradu batzuk.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.



Edozein harreman juridikorekin ondoko lanpostuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari (goi-mailako teknikarien klasea, ingurumena, A1 azpitaldea) atxikitako lanpostuak edo baliokideak, edo deitutako plazari dagokion lanpostuaren eduki berdineko eginkizunak (ingurumena zuzendu eta lehengoratzeko obra proiektuak idaztea eta teknikoki garatzea) dituzten lanpostuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari (goi-mailako teknikarien klasea, ingurumena, A1 azpitaldea) atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, baldin eta deitutako plazari dagokion lanpostuaren eduki berdineko eginkizunak badituzte (ingurumena zuzendu eta lehengoratzeko obra proiektuak idaztea eta teknikoki garatzea).

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 6 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako doktore titulua: 5 puntu.
- B. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoak salbu: 2 puntu.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 4 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:



- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea honako baremo honen arabera baloratuko da:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 4,69 puntu.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 8,25 puntu.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkaturik deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.

**V. ERANSKINA**

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO
INGENIARIA) SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko plaza 1 (bide, ubide eta portuetako ingeniaria, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazari dagokion lanpostuak 3. hizkuntza-eskakizuna dauka, derrigortasun data igarota.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, bide, ubide eta portuetako ingeniari titulua edo unibertsitate gradua gehi bide, ubide eta portuetako ingeniariartzako masterra eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

Halaber, deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.



Edozein harreman juridikorekin administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (bide, ubide eta portuetako ingeniariak, A1 azpitaldea, edo baliokideak) emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (bide, ubide eta portuetako ingeniaria, A1 azpitaldea) emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 6 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako doktore titulua: 5 puntu.
- B. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoa salbu: 2 puntu.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 4 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).



- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea ez da baloratuko merezimendu bezala, deitutako plazari dagokion lanpostuak 3. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukalako.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, aplikatuko da artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiago ordezkaturik baitaude deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta lehentasuna emango zaie.



VI. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA)
SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 3 plaza (hizkuntza normalizazioa, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuek 4. hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun data igarota.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, euskal filologiako lizentzia edo euskal ikasketetako gradua eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuak esleitzeko, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (hizkuntza normalizazioa, A1 azpitaldea, edo baliokideak) emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.



Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien klasean (hizkuntza normalizazioa, A1 azpitaldea) emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 6 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako doktore titulua: 5 puntu.
- B. Deitutako plazei dagozkien espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua: 2 puntu.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 4 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).



- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea ez da baloratuko merezimendu bezala, deitutako plazei dagozkien lanpostuek 4. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukatelako.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkatuta deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.



VII. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN, GOI-
MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEAN (INGURUMEN EBALUAZIOA) SARTZEKO
IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko plaza 1 (ingurumen ebaluazioa, A taldea, A1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazari dagokion lanpostuak 4. hizkuntza-eskakizuna dauka, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, titulu hauetakoren bat eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki: biologiako lizentziaduna, ingurumen zientzietako lizentziaduna, agronomia-ingeniaria, mendi ingeniaria, biologiako edo ingurumen zientzietako unibertsitate graduak edo unibertsitate graduak gehi agronomia-ingeniaritzako edo baso ingeniartzako masterra.

Deialdi honetan izena emateko tasa 30 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.



Edozein harreman juridikorekin ondoko lanpostuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari (goi-mailako teknikarien klasea, ingurumen ebaluazioa, A1 azpitaldea) atxikitako lanpostuak edo baliokideak, edo deitutako plazari dagokion lanpostuaren eduki berdineko eginkizunak (ingurumen ebaluazio eta zuzenketari buruzko txostenak egitea eta laguntza teknikoa ematea) dituzten lanpostuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeak, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari (goi-mailako teknikarien klasea, ingurumen ebaluazioa, A1 azpitaldea) atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, baldin eta deitutako plazari dagokion lanpostuaren eduki berdineko eginkizunak badituzte (ingurumen ebaluazio eta zuzenketari buruzko txostenak egitea eta laguntza teknikoa ematea).

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 6 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako doktore titulua: 5 puntu.
- B. Deitutako plazari dagozkion espezialitateetako unibertsitate master ofiziala eta homologatua, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoak salbu: 2 puntu.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 4 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko
- C2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:



- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko teknikari laguntzaileen klaseko 5 plaza (mantentzeko ofiziala, C taldea, C1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuek 1. hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, elektrizitate eta elektronika, fabrikazio mekaniko, instalazio eta mantentze arloetako lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulua, automozioiko goi-mailako teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagozkien 4 lanpostu esleitzeko, C gidabaimena eduki behar da, eta lanpostu baterako, B gidabaimena.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari, teknikari laguntzaileen klaseari (mantentzeko ofiziala, C1 azpitaldea) atxikitako postuetan emandako



zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari, teknikari laguntzaileen klaseari (mantentzeko ofiziala, C1 azpitaldea) atxikitako postuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 8 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar denaz bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. 3,5 puntu, deialdian parte hartzeko eskatzen den titulu bakoitzeko, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoa izan ezik.
- B. puntu 1, gehienez 2 puntutaraino, deialdian parte hartzeko eskatutakoez bestelako espezialitateetako lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).



- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea honako baremo honen arabera baloratuko da:

- 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, aplikatuko da artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiago ordezkaturik baitaude deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta lehentasuna emango zaie.

XXIV. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOAN,
TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN KLASEAN (ARTE GRAFIKOAK) SARTZEKO
IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko teknikari laguntzaileen klaseko 2 plaza (arte grafikoak, C taldea, C1 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuek 1. hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, arte grafikoen arloko lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

3.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikorearen atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

3.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, teknikari laguntzaileen klasean (arte grafikoak, C1 azpitaldea, edo baliokidea) emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

3.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, teknikari laguntzaileen klasean (arte grafikoak, C1 azpitaldea) emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

3.2 Ikasketa-merezimenduak

3.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. 3 puntu, deialdian parte hartzeko eskatzen den titulu bakoitzeko, izangaiak deialdian parte hartzeko erabilitakoa izan ezik.
- B. 0,5 puntu, gehienez puntu 1eraino, deialdian parte hartzeko eskatutakoez bestelako espezialitateetako lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.

3.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

3.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

3.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

- A. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, teknikari laguntzaileen klasean (arte grafikoak), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.
- B. Administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoan, teknikari laguntzaileen klasean (arte grafikoak), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 8 puntu.

3.4 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea honako baremo honen arabera baloratuko da:

– 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.

4.– Lehenetsun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, aplikatuko da artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiago ordezkaturata baitaude deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta lehenetsuna emango zaie.



XXV. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
ZEREGIN BEREZIEN KLASEAN (LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA) SARTZEKO
IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.****1.- DEITUTAKO PLAZAK.**

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako zeregin berezien klaseko 10 plaza (liburutegiko laguntzailea, C taldea, C1 azpitaldea) betetzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

10 plazak, 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkie.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, batxilergo titulua, teknikari titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagozkien 10 lanpostuak esleitzeko, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, zeregin berezien klasean (liburutegiko laguntzailea, C1 azpitaldea, edo baliokidea) emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.



Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpieskalan, zeregin berezien klasean (liburutegiko laguntzailea, C1 azpitaldea) emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

3 punturekin baloratuko da informazio eta dokumentazio gradua edo bibliotekonomia eta dokumentazio diplomatura edukitzea.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.



4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

- A. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, zeregin berezien klasean (liburutegia), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu
- B. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, zeregin berezien klasean (liburutegia), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 8 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea ez da baloratuko merezimendu bezala, deitutako plazei dagozkien lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukatelako.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkatuta deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.



XXVI. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAKO AZPIESKALA LAGUNTZAILEAN
SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.****1.- DEITUTAKO PLAZAK.**

Dei egiten da administrazio orokorreko eskalako azpieskala laguntzaileko 11 plaza (C taldea, C2 azpitaldea) betetzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

- 5 plaza, 2. hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarik gabe daukaten lanpostuei dagozkie.
- 6 plaza, 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkie.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Euskarazko hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun data igarota daukaten lanpostuak esleitzeko, hura betetzen dela egiaztatu beharko da.

Gainera, deitutako plazei dagozkien bi lanpostu esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.



Edozein harreman juridikorekin administrazio orokorreko eskalako azpieskala laguntzailean (C2 azpitaldea edo baliokidea) emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira administrazio orokorreko eskalako azpieskala laguntzailean, C2 azpitaldean emandako zerbitzuak.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 8 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

A. 3,5 puntu titulu hauetako bakoitzeko:

- Administrazio eta finantzetako lanbide heziketako goi-mailako teknikaria edo baliokidea.
- Administrazio kudeaketako lanbide heziketako goi-mailako teknikaria edo baliokidea.

B. 2 puntu, administrazio kudeaketako lanbide heziketako teknikari titulu edo baliokide bakoitza edukitzeagatik.

C. puntu 1, batxilergo tituluagatik edo 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko probagatik.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko



4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Derrigortasun data igarota daukan hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuei dagozkien plazetan bakarrik baloratuko da euskaraz jakitea, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.
- 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 4,69 puntu.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkaturik deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.



XXVII. ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
HAINBAT LANBIDETAKO LANGILEEN KLASEAN (HARRERAGILE
TELEFONISTA) SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako hainbat lanbidetako langileen klaseko plaza 1 (harreragile telefonista, C taldea, C2 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazari dagokion lanpostuak 2. hizkuntza-eskakizuna dauka, derrigortasun data igarota.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin ondokoetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat



lanbidetako langileen klasea (harreragile telefonista, C2 azpitaldea), edo deitutako plazaren eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeak, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira ondokoetan emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat lanbidetako langileen klasea (harreragile telefonista, C2 azpitaldea), edo deitutako plazaren eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 8 punturekin baloratuko dira deitutako plaza lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. 3,5 puntu, gehienez 7 puntutaraino, lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu edo baliokide bakoitzeko.
- B. 2 puntu, gehienez 4 puntutaraino, lanbide heziketako teknikari titulu edo baliokide bakoitzeko.
- C. puntu 1, batxilergo tituluagatik edo 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko probagatik.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 13 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:



- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea ez da baloratuko merezimendu bezala, deitutako plazari dagokion lanpostuak 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukalako.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkaturik deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.

**XXVIII. ERANSKINA**

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
HAINBAT LANBIDETAKO LANGILEEN KLASEAN (GIDATZEA) SARTZEKO
IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako hainbat lanbidetako langileen klaseko 3 plaza (gidatzea, C taldea, C2 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuak esleitzeko, C gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikoren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin ondokoetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat



lanbidetako langileen klasea (gidatzea, C2 azpitaldea), edo deitutako plazen eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira ondokoetan emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat lanbidetako langileen klasea (gidatzea, C2 azpitaldea), edo deitutako plazen eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. 1,5 puntu, lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitza edukitzeagatik.
- B. 0,75 puntu, gehienez 1,5 puntutaraino, lanbide heziketako teknikari titulu bakoitza edukitzeagatik.
- C. 0,5 puntu, batxilergo tituluagatik edo 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko probagatik.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko

4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).



- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

A. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (gidatzea, C2 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.

B. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (gidatzea, C2 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 8 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea honako baremo honen arabera baloratuko da.

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.
- 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 6,25 puntu.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkatzuta deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.

**XXIX. ERANSKINA**

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
HAINBAT LANBIDETAKO LANGILEEN KLASEAN (MANTENTZEKO
LAGUNTZAILEA) SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako hainbat lanbidetako langileen klaseko plaza 1 (mantentzeko laguntzailea, C taldea, C2 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazari dagokion lanpostuak 2. hizkuntza-eskakizuna dauka, derrigortasun datarik gabe.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

3.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 52 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

3.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin ondokoetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalari, hainbat lanbidetako langileen klaseari (C2 azpitaldea) atxikitako postuak, mantentze eremu funtzionalari dagozkion eginkizunekin.



Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 13 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,09 puntu emanez.

3.1.2 Esperientzia espezifikoa.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira ondokoetan emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalari, hainbat lanbidetako langileen klaseari (C2 azpitaldea) atxikitako postuak, mantentze eremu funtzionalari dagozkion eginkizunekin.

Esperientzia espezifikoa gehienez ere 39 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,27 puntu emanez.

3.2 Ikasketa-merezimenduak

3.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 8 punturekin baloratuko dira deitutako plazak lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

- A. 3,5 puntu, mantentze eremu funtzionalarekin lotura duen lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.
- B. 2 puntu, gehienez 4 puntutaraino, mantentze eremu funtzionalarekin lotura duen lanbide heziketako teknikari titulu bakoitzeko, edo deitutako plazan bete beharreko eginkizunekin loturarik ez duen lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.
- C. puntu 1, batxilergo tituluagatik edo 25 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko probagatik.

3.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko



3.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere hamahiru (13) punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, 1,3 puntu emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

3.3 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea honako baremo honen arabera baloratuko da:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.
- 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 4,69 puntu.

4.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, ez da aplikatuko artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiago ordezkatuta deitutako plazaren eskalan, azpieskalan eta klasean, eta ez zaie emango lehentasunik.

**XXX. ERANSKINA**

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
HAINBAT LANBIDETAKO LANGILEEN KLASEAN (HERRILANEN
KONTROLATZAILEA) SARTZEKO IRAUPEN LUZEKO ENPLEGUA
EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

1.- DEITUTAKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako hainbat lanbidetako langileen klaseko 4 plaza (herrilaren kontrolatzailea, C taldea, C2 azpitaldea) betetzeko.

Deitutako plazei dagozkien lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun data igarota.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki.

Deialdi honetan izena emateko tasa 20 euro da.

3.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK.

Deitutako plazei dagozkien 4 lanpostuak esleitzeko, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu eta B gidabaimena eduki behar da.

4.- HAUTAKETA-PROZESUA.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuko kalifikazioa ondoren zehazten diren merezimenduen balorazioaren arabera emandako puntuak batuta zehaztuko da.

4.1. Esperientzia.

Lanbide esperientziaren balorazioaren gehieneko puntuazioa ezin izango da 60 puntu baino gehiago izan, eta esperientzia orokorraren atalean eta, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean emandako zerbitzuengatik esperientzia espezifikokoaren atalean lortutako puntuazioaren batura izango da.

Esperientzia orokorra eta espezifikoa neurtzeko, lan egindako aldiak batuko dira, eta batura hori amaitu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira.

Ondorio horietarako, 30 egunek osatuko dute hilabetea.

4.1.1 Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartuko dira indarreko araudiaren arabera eta, bereziki, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 2. artikuluan xedatutakoaren arabera administrazio publikotzat hartzen diren erakunde eta organismoetan emandako zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorra barne delarik.

Edozein harreman juridikorekin ondokoetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritza-zerbitzuen alokairu kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat



lanbidetako langileen klasea (herrilanen kontrolatzailea, C2 azpitaldea), edo deitutako plazen eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Hartarako, baliokidetzat emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko foru, toki eta autonomia administrazioan emandako zerbitzuak, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetzat zehazten duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan ezarritako moduan, ezertan eragotzi gabe geroagoko arauetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren eguneratzeak (otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeak, eta azaroaren 11ko 7/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzkoa).

Esperientzia orokorra gehienez ere 15 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,104 puntu emanez.

4.1.2 Esperientzia espezifikoak.

Esperientzia espezifikotzat hartuko dira ondokoetan emandako zerbitzuak: administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat lanbidetako langileen klasea (herrilanen kontrolatzailea, C2 azpitaldea), edo deitutako plazen eduki berdineko eginkizunak dituzten lanpostuak.

Esperientzia espezifikoak gehienez ere 45 punturekin baloratuko da, lan egindako hilabete oso bakoitzeko 0,312 puntu emanez.

4.2 Ikasketa-merezimenduak

4.2.1 Ikasketa-tituluak

Gehienez ere 3 punturekin baloratuko dira deitutako plaza lortzeko behar direnez bestelako ikasketa-titulu ofizialak, ondoko baremoaren arabera:

A. 2 puntu, ondoko edo baliokideko tituluak bakoitza edukitzeagatik:

- Eraikuntza-obra antolatu eta kontrolatzeko lanbide heziketako goi-mailako teknikaria.
- Eraikuntza-proiektuetako lanbide heziketako goi-mailako teknikaria.
- Obra zibilen proiektuetako lanbide heziketako goi-mailako teknikaria.

B. Puntu 1, gehienez 2 puntutaraino, aurreko atalean adierazitakoez bestelako lanbide heziketako teknikari edo lanbide heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitza edukitzeagatik.

C. 0,50 puntu, batxilergo tituluagatik edo 25 urtetik gorakoak unibertsitatara sartzeko probagatik.

4.2.2. Hizkuntzak jakitea.

Gehienez 2 puntu emango dira ingelesa, frantsesa eta alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko lan-hizkuntza direnez, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila hauetan eta baremo honen arabera:

- B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko
- B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko
- C1 maila edo goragokoa: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko



4.2.3. Informatikaren ezagutza.

Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da informatikaren ezagutza, puntu 1 emanez ondoko ziurtapen hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (oinarrizko maila).
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (oinarrizko maila).
- Internet (oinarrizko maila).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 (maila aurreratua).
- Microsoft Access 2000/XP/2003 (maila aurreratua).
- Internet (maila aurreratua).
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010 (maila bakarra).

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarritzko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

4.3 Beste merezimendu batzuk

Atal honetan, ondoko merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 25 punturekin:

A. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (herrilaren kontrolatzailea, C2 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio fasea gainditu izana: 25 puntu.

B. Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan, hainbat lanbidetako langileen klasean (herrilaren kontrolatzailea, C2 azpitaldea), Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izateko azken deialdiko (2007ko EPE) oposizio faseko ariketaren bat gainditu izana: 8 puntu.

4.4 Euskaraz jakitea

Euskaraz jakitea ez da baloratuko merezimendu bezala, deitutako plazei dagozkien lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data igarota daukatelako.

5.– Lehentasun klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzearen ondorioetarako, aplikatuko da artikulua hartan ezarritako berdinketa hausteko klausula, emakumeak gutxiago ordezkatuta baitaude deitutako plazen eskalan, azpieskalan eta klasean, eta lehentasuna emango zaie.

**XXXI. ERANSKINA**

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ADMINISTRAZIO OROKORREAN
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAN,
